

ASPALDIKO DEMOKRAZIA

Agintari gogorak euren menpe gogorrean euki ginduezan ia 40 urtean (1936-1974), baiña danari jatorko azkena mundu onetan eta denporaldi ori be amaitu zan.

Izan ziran estualdiak, erregea bere jesarlekuan sendo ezarri arte, baiña azkenean orra be eldu giñan.

Zelan jokatuko ete eban erregeak? Guk ba-genkian erregeak, bere erreñuak sendo eta osorik jarraitu egian alegiña egingo ebal, erregeagaz be Euskalerriaren askatasun osoa eziña izango zala, baiña len baiño obeto beintzat, bai euskerearentzat eta bai Euskalerriarentzat.

Sortu ziran errigintzarako alderdiak, sortu zan Madrid'eko lege-batzarra... eta Euskalerria'n zer?

Emen be gure lege-batzarra edo parlamentua sortu gendun auteskundea egin-ondoren, alderdien ordezkariak or geunkazela.

So egin dagiogun apur bat astitsuago gure Lege-Batzarrari, parlamentuari.

Argi agertzen jaku, or bitariko alderdiak daukaguzala. Batzuk abertzaleak (EAJ, EA ta BATASUNA) eta abertzaleak ez diranaz beste batzuk (PSOE, PP eta EB). Olako Lege-Batzar batetik atera lei aurrera gure Euskalerria?

Ez da gauza erreza, lenengo iru eskualde baiño sartzen ez diralako eta bigarren abertzaleak ez diranen indarra aundia dalako.

Dana dala, ba-goaz aurrera eta Lendakari abertzalea izan dogu beti orain arte.

Zer pentsau España'tarrak diran alderdi orrei buruz?

Ona emen lenengo egin bear dautsegun itauna: Zuek onartzen dozue bere zazpi lurraldeetan bizi dan Euskalerria? Uste dot ezetza izango dala erantzuna.

Eta bigarrena: Euskalerri orrek askatasun osoa eskatzeko eskubidea daukola onartzen dozue? Emen ezetza gogorragoa izango da. Orreik nai leukeena Euskalerriarik ez izatea eta gu espatarrak izatea da.

Orduan eziña da olako alderdiakaz Euskalerria aurrera ateratea, orrein pentsabidean demokraziaren oiñarria peitzen dalako.

Eta alderdi abertzaleen artean beste arazo bat dator: Erriaren askatasun osoa lortzeko, alkar-izketearen bidea ala gogorkeriaren eta izkillu-bidearen alde agertuko dira eta orreikaz be ezin dogu gure erria aurrera atera. Dana dala, arazo au konpondu leikela dirudi eta laster bideratuko dala esan lei. Urrats on bat litzake ori abertzeleak alkartzeko eta geiengo ziurra euki dagien.

Orrelan gauza asko lortu geinkez. Ba-dago itxaropena.

Etorkizunari begira:

- Zazpiak bat eginda, askatasun osoa urrin ikusten da.
- Orain-arte lez "anfiktoria"-egoereak jarraituko dau.
- Ipar-ego euskal lurraldeak alkarrari laguntzea be lortu leike: Lantegiak, langilleak, bideak, trenak, txangolariak... alkarren laguntza biurtuta.

Eta orrelan Euskalerriak jarraituko dau. Geroak esangou dau geiago lortzeko gai garan ala ez.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

OARRA

Zenbaki au maiatzari eta bagillari dagokiena da.

Bagilleko ZER aldizkaria ez da argitaratuko.

Ordez EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren 40n. urtea gogoratzen eta ospatzen dauan agiria bialduko dogu.

Urrengo ZER uztail eta agustukoa izango da.

EUSKERAZALEAK